

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de
Hacienda y Finanzas



Europar Batasunak
kofinantzatua

Cofinanciado por
la Unión Europea

ERAGIKETAK HAUTATZEKO **INTERES- ADIERAZPENETARAKO** **DEIALDIA**

EUSKADIKO EGEF 2021-2027 PROGRAMA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO Zerga eta Finantza
Politikako Zuzendaritza

2025eko MAIATZA



AURKIBIDEA

1. EUSKADIKO EGEF 2021-2027 PROGRAMA.....	3
2. PROGRAMAREN ESPARRUAN ERAGIKETAK HAUTATZEKO IRIZPIDEAK ETA PROZEDURAK	5
3. INTERES ADIERAZPENEN DEIALDI HONEN XEDEA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN INBERTSIO-KONTRATAZIO ERAGIKETAK	6
4. DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN ERAGIKETEN HELBURUAK ETA TIPOLOGIAK	7
4.1 1.2. Helburu Espezifikoa. Digitalizazioaren abantailak aprobetxatzea herritarrentzat, enpresentzat, ikerketa-erakundeentzat eta administrazio publikoentzat.	7
4.2 2.1. Helburu Espezifikoa. Energia-efizientzia eta berotegi-efektuko gasen emisioen murrizketa sustatzea.	8
4.3 2.7. Helburu Espezifikoa. Natura, biodibertsitatea eta azpiegitura berdeak babestea eta sustatzea, baita hiri-eremuetan ere, eta kutsadura mota oro murriztea.	9
4.4 2.8. Helburu Espezifikoa. Hiri-mugikortasun multimodal eta jasangarria sustatzea, karbonoaren zero isuri netoko ekonomiara doan trantsizioaren barruan.	10
5. ERAGIKETAK HAUTATZEA	12
6. ONURADUNEN BETEBEHARRAK	13



1. EUSKADIKO EGEF 2021-2027 PROGRAMA

Euskadiko EGEF 2021-2027 Programak programazio-aldi honetan Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF) Euskadin kofinantzatuko dituen jardueri buruzko estrategia, helburu politiko eta espezifikoak eta esku hartzeko ildoak zehazten dituen dokumentua da, baita helburu horietarako programatutako finantza-zuzkidurak ere (programak 165.679.269 euro ditu esleituta EGEF funtsetatik).

Euskal Autonomia Erkidegorako diagnostikatutako esku-hartze premia eta erronka nagusiei erreparatuta, eta kontuan hartuta Estatuaren eta Europako Batzordearen arteko Lankidetzak Akordioa, esku-hartzeen kontzentrazioari buruz ezarritako Europako erregelamendu-xedapenak, Europako funtsen arteko koordinazioa, eta esku-hartzearen esparru logikoa (sinplifikazioa eta zatiketarik eza), Programak proposatzen du bere esku-hartzeak 1. helburu politikoan (HP1-Europa lehiakorragoa eta adimentsuagoa) eta 2. helburuan (HP2-Europa berdeagoa) kontzentratzea, kontuan hartuta baliabideen % 85, gutxienez, 1 eta 2 HPen artean esleitu behar dela, eta baliabideen % 30, gutxienez, HP2ri esleitu behar zaiola.

Hori guztia honelako aurrekontu-banaketan islatzen da: 83.862.392 euro HP1erako (Europa lehiakorragoa eta adimentsuagoa), eta 81.816.877 euro HP2rako (Europa berdeagoa). Horrela, EGEF funtsak helburu politikoen artean nahiko modu orekatuan banatzea proposatzen da, gutzitzaoren % 50,62 HP1era eta % 49,38 HP2ra bideratuz.

1. Helburu Politikoaren barruan bi lehentasun definitu dira, L. 1.A, Trantsizio digital eta adimenduna, I+G+Bren (HE1.1) eta digitalizazioaren (HE1.2) helburu espezifikoak barne hartzen dituen eta 1.C lehentasuna "Trantsizio digital eta adimenduna STEP", STEP Europarako Teknologia Estrategikoen Plataformari buruzko helburu espezifikoak hartzen duena (1.6); 2. Helburu Politikoaren barruan, berriz, 2 lehentasun zehaztu dira, 2.A. Lehentasuna. "Trantsizio berdea", energia-eraginkortasunari (2.1. HE), arriskuei (2.4. HE), eta bioaniztasunari (2.7. HE) buruzko helburu espezifikoak biltzen dituen; eta hiri-mugikortasunari buruzko 2.B lehentasuna, erregelamendu bidez ezartzen baita hiri-mugikortasunari buruzko 2.8. HEak lehentasun bereizia izan behar duela.

EGEFaren Euskadiko 2021-2027 Programaren egitura

Helburu politikoa	Lehentasuna	Helburu espezifikoa
HP1. Europa lehiakorragoa eta adimentsuagoa	L 1.A Trantsizio digitala eta adimentsua	HE1.1.- I+G+B HE1.2. - Digitalizazioa
	L 1.A Trantsizio digitala eta adimentsua STEP	HE1.6. - STEP
HP2. Europa berdeagoa	L 2.A Trantsizio berdea	HE2.1. Energia-eraginkortasuna
		HE2.4. – Arriskuak
		HE2.7. – Bioaniztasuna
L 2.B Hiri-mugikortasuna	HE2.8. – Hiri-mugikortasuna	

EGEF programaren jarduera-eremuak Euskal Autonomia Erkidego osoa hartzen du. Programaren denbora-esparruak 2021-2027 programazio-aldiari dagozkion zazpi urteak hartuko ditu barne, N+2 arauak ezartzen dituen jarduerak gauzatzeko bi urteko malgutasunarekin luzatuta. Horrela, gastua diruz lagundu ahal izango da 2021eko urtarrilaren 1etik 2029ko abenduaren 31ra arte.

Ogasun Ministerioaren Europako Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren EGEF Kudeatzeko Zuzendariordetza Nagusiak du EGEF Programaren Kudeaketa-Agintaritza.

Euskadiko 2021-2027 EGEF Programan 4 Bitarteko Erakunde daude ezarrita: Gipuzkoako Foru Aldundia, Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritza. Horiek, Kudeaketa-



**Europar Batasunak
kofinantzatua**
**Cofinanciado por
la Unión Europea**

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ogasun eta Finantza
Departamentua



**Diputación Foral
de Gipuzkoa**
Departamento de
Hacienda y Finanzas

Agintaritzarekin dituzten Eginkizunak Esleitzeko Akordioen bidez, Programan kofinantzatu beharreko jardueren kudeaketa, jarraipena, kontrola, informazioa eta ebaluazioa egingo dituzte.

Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritza da Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bitarteko Erakundearen unitate koordinatzaile arduraduna; bai Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatutako jarduketetarako, bai bere erakunde eta sozietate publikoetarako.



2. PROGRAMAREN ESPARRUAN ERAGIKETAK HAUTATZEKO IRIZPIDEAK ETA PROZEDURAK

Euskadiko 2021-2027 EGEF Programako Eragiketak Hautatzeko Irizpide eta Prozeduren dokumentuan, EGEFekin kofinantzatzeko eragiketak hautatzeko prozeduretan kontuan hartu behar diren nahitaez bete beharreko irizpideak jasotzen dira (hautagarritasuna).

Era berean, proposamenen ebaluazio-fasean eragiketak lehenesteko erabili beharko diren irizpideak jasotzen dira, horien kalitatea eta bideragarritasuna ziurtatzeko eta programaren estrategiarekin eta lotuak dituzten helburu espezifikoekin egokitzen direla ziurtatzeko.

Eragiketen hautaketa hiru metodo orokorren bidez antola daiteke, hautaketa horretarako prozesuak hasteko:

- laguntzen deialdiak, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren printzipioen arabera.
- Programan jasotako eragiketak zuzenean hautatzea, eta
- **interes-adierazpenen deialdia.**

Ildo horretan, **Gipuzkoako Foru Aldundiak Euskadiko 2021-2027 EGEF Programan EGEFekin kofinantzatutako eragiketarako bitarteko erakunde gisa dituen eginkizunen eta prozeduren Deskribapen** dokumentuaren 2.1.2 atalean, erabili beharreko eragiketak hautatzeko oinarriko metodoa garatzen da (interes-adierazpenen deialdia), finantzaketa eskaera aurkezteko modua, prozedura hasteko modua eta eskaerei aplikatzen zaizkien izapideak adierazten dira.

Zehazki, **eragiketak interes-adierazpenen deialdietatik abiatuta hautatzea** planteatzen da, eta adierazten da politika publikoen eremu jakin batean eskumena duten organismo edo erakunde publikoek zuzenean gauzatutako inbertsioei aplikatuko zaiela, baldin eta inbertsio horiek eskusiboak badira, edo berariaz esleituta dituzten eskumenak erabiliz (Gipuzkoako Foru Aldundiko zuzendaritzak, edo mendeko beste erakunde publiko bat).

Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundia - Bitarteko Erakundearen unitate arduradun koordinatzailea den aldetik, erakunde eta organismo interesdunek bidalitako Interes Adierazpenetatik abiatuta hautatuko ditu eragiketak.

Nolanahi ere, jasotako interes-adierazpen guztiak Zuzendaritzak erregistratu beharko ditu, eta erakunde eta organismo eskatzaileei jakinarazi beharko zaizkie adierazpen horiek onartzeari edo ukatzeari buruz hartutako erabakiak.

Garrantzitsua da kontuan hartzea, EGEFekin kofinantzatzeko eragiketak hautatzeko prozesu osoaren metodologia argitzeko, hautatutako proiektuek edo eragiketek Kudeaketa Agintaritzaren aplikazio informatikoan jaso behar dutela Xedapen Komunaren Erregelamendutik, Lankidetzaren Akordiotik, programaren-konpromisoetatik eta eragiketari edo proiektu bakoitzari (lehentasunekoak eta ingurumenekoak) aplikatu beharreko gainerako irizpide eta baldintza guztiak betetzen direla.

Horretarako, "Funtsak 21-27" aplikazioak dagozkion egiaztapen-zerrendak ezartzen ditu. Zerrenda horiek nahitaez bete behar ditu Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritzak EGEF kofinantzaketara onartzeko. Modu honetan, betebeharrak eta irizpide guztiak betetzen direla egiaztatuko da.



3. INTERES ADIERAZPENEN DEIALDI HONEN XEDEA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN INBERTSIO-KONTRATAZIO ERAGIKETAK

Interes-adierazpenen deialdi honen xedea da **Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumen eskusiboen eremu jakin baten barne dauden organismo edo erakunde publikoek (zuzendaritzek edo mendeko beste erakunde edo entitate publiko batek) 2021-2027 EGEF Euskadiko Programaren esparruan zuzenean gauzatutako inbertsioetan dautzan eragiketak hautatzeko prozedura implementatzea eta publikoki jakinaraztea** (Gipuzkoan garatutako eragiketak, diruz lagundu daitezkeen gastua 2021eko urtarrilaren 1etik 2029ko abenduaren 31ra artekoa izango da).

Horretarako, Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritzak **finantzaketa-eskaeraren eredu**a prestatu du, eta onuradun izan daitezkeen eskura ere jarri du.

Horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiak jorratuko dituen Programaren inbertsio-lehentasunei eta helburu espezifikoetarako lotutako gaitan eskumena duten Foru organo kudeatzaileekin eta mendeko erakunde publikoekin zuzenean izango duen harremanaz gain, Zuzendaritzaren web orrian prozeduraren berri ematea du helburu interes-adierazpeneko deialdi honek, eta onuradun izan daitezkeen guztiei irekita uztea.

Ildo horretan, hurrengo atalean zehazten dira 2021-2027 EGEF Euskadiko Programaren inbertsio-lehentasunetan eta helburu espezifikoetan diruz lagun daitezkeen eragiketen zehaztapenak (helburuak eta tipologia), zeintzutan, hasiera batean, Gipuzkoako Foru Aldundiak parte hartuko baituen, inbertsio eta kontratazio eragiketa zuzenetatik abiatuta:

- 1.A Lehentasuna. Trantsizio digitala eta adimentsua
 - 1.2 Helburu Espezifikoa. Digitalizazioaren abantailak aprobetxatzea herritarrentzat, enpresentzat, ikerketa-erakundeentzat eta administrazio publikoentzat.
- 2.A. Lehentasuna. Trantsizio berdea
 - 2.1. Helburu Espezifikoa. Energia-efizientzia eta berotegi-efektuko gasen emisioen murrizketa sustatzea.
 - 2.7. Helburu Espezifikoa. Natura, biodibertsitatea eta azpiegitura berdeak babestea eta sustatzea, baita hiri-eremuetan ere, eta kutsadura mota oro murriztea.
- Eta 2.B. Lehentasuna "Hiri-mugikortasuna":
 - 2.8. Helburu Espezifikoa. Hiri-mugikortasun multimodal eta jasangarria sustatzea, karbonoaren zero isuri netoko ekonomiara doan trantsizioaren barruan.



4. DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN ERAGIKETEN HELBURUAK ETA TIPOLOGIAK

4.1 1.2. Helburu Espezifikoa. Digitalizazioaren abantailak aprobetxatzea herritarrentzat, enpresentzat, ikerketa-erakundeentzat eta administrazio publikoentzat.

Ekintzen tipologia

- E-Gobernuko aplikazioen garapen-jarduerak, Administrazioaren hainbat lan-eremutan eta honek herritarrekin, enpresekin eta abarrekin dituen harremanetan digitalizazioak dituen abantailen aprobetxamendua erraztuko dutenak (e-administrazioa, zerga-kudeaketa, herritarren karpeta...). Lehentasuna emango zaie balio erantsiko zerbitzu berriak eskaintzen dituzten edo administrazio publikoentzat irtenbide berritzaileak errazten dituzten jarduerari, egungo egoerarekiko hobekuntza nabarmena ekarriko dutenak (zerbitzuen hobekuntza nabarmena ekarriko dutenak) eta digitalizazio-planetan sartzen direnak. Adibide gisa, zerrenda orokor bat adierazi gabe, honako hauek izango lirakeke zerbitzu berrien ekintza-eremuak eta motak. Zerga-arloan, antzinako teknologia ezabatzea -HOST- eta Foru-Ogasunak berregituratuko dituen eta norbanako bakoitzaren jarduera pertsonalizatuan oinarrituko den sistema batekin ordezkatzeko; zergadunen betebeharrak burutzea nabarmenki erraztuko duten eta, aldi berean, kudeaketa publikoaren eraginkortasuna hobetuko duten aplikazioak garatzea. Esparru berritzaileago batean gehituko ziren: "Data Fabric", Big Data sistema, kontzeptuak bateratzeko, Data Market-a gaitzeko eta datuaren erabilera sustatzeko; bai eta Robotizazioa edo RPA, roboten erabilera administrazio-jardueraren eraginkortasunerako.
- IKT azpiegitura aurreratuak/berritzaileak garatzea dakarten jarduerak, e-gobernuaren garapenari eta interoperabilitateari euskarria emateko; Administrazioari azken belaunaldiko IKT azpiegiturak emanez, besteak beste, Data center, Big Data eta Adimen Artifizialarekin eta zibersegurtasunarekin lotutakoak. Zeharkako soluzioak eta elkarri lotutakoak bultzatu nahi dira, administrazioen eta erakunde publikoen arteko elkarlanerako bide komuna ezarriz, eremu teknologikoan bateratzea eta integratzea sustatuz, abantaila ugarirekin, hala nola, kostuen aurrezpen garrantzitsua, eta kudeaketa publikoaren eraginkortasunaren hobekuntzan sakonduz.

Lotutako gauzatze-adierazleak

- RCO14. Zerbitzu, produktu eta prozesu digitalak garatzeko lagundutako zentro publikoak

Lotutako emaitza-adierazleak

- RCR11. Zerbitzu, produktu eta prozesu digital publiko berri eta hobetuen erabiltzaileak

Eragiketen Hautaketarako Irizpide eta Prozeduren dokumentua: Hautagarritasun- irizpideak

- Sektore publikoaren eremuan garatutako jarduerak honako hauek bete beharko dituzte: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko urriaren 26ko 2016/2102 (EB) Zuzentaraua, sektore publikoko organismoen webguneen eta gailu mugikorretarako aplikazioen irisgarritasunari buruzkoa, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 20ko 2019/1024 (EB) Zuzentaraua, datu irekiei eta sektore publikoaren informazioa berrerabiltzeari buruzkoa.
- HE honetan finantzatu beharreko jarduerak sortzen ari diren teknologietan oinarritu beharko dira edo berritzaileak izan beharko dute. Oinarritzko IKT ekipamenduan inbertitzea edo ordezte besterik ez dakarten jarduerak sektore-helburu espezifikoekin programatuko dira.
- HE honetan finantzatu beharreko jarduerak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Digitalizazio Planaren barruan kokatu beharko dira.



- Telelana ezartzeko eta/edo hobetzeko inbertsioak ez dira finantzatu.
- Europako beste finantzaketa-funts/-tresna batzuekiko osagarritasuna. Hautatutako eragiketen gastuetan finantzaketa bikoitzik ez dela egongo bermatuko da, Europatik bi finantzaketa-iturri izatea saihestuz.

Eragiketen Hautaketarako Irizpide eta Prozeduren dokumentua: Lehentasun-irizpideak

- Heldutasun maila.
- Kostua.
- Zerbitzu publikoen eraginkortasuna, efizientzia eta kalitatea hobetzea
- Eragin handiagoa herritar guztiengan.

4.2 2.1. Helburu Espezifikoa. Energia-efizientzia eta berotegi-efektuko gasen emisioen murrizketa sustatzea.

Ekintzen tipologia

- Administrazioak proiektu berritzaileak, erakusgarriak eta errepikagarriak diseinatu eta garatzea, eredu energetikoaren aldaketa bultzatzeko. Eskariaren kudeaketa-eredu energetiko berrirako trantsizioa bizkortu nahi da, energia-soberakinen aprobetxamenduak dakarren aurrezpenean eta eraginkortasunean oinarrituta, soberako industria-beroaren kasuan bezala. Hondakin-beroak industria-establezimenduetatik datoz, eta bero-gunetik gertu dauden eraikin publikoetan aprobetxatu nahi dira batez ere. "Barrutiko berokuntza-sare eraginkorrak (sortu berriak)" bezala daude definituak 2012/27/EU Zuzentarauaren 2. artikulua 41. puntuaren arabera. Horrelako jarduerak agerian uzten dute Trantsizio energetiko-klimatikoaren eta Trantsizio teknologiko-digitalaren arteko lotura.

Lotutako gauzatze-adierazleak

- RCO20. Hiriko berokuntza eta hozte sare eraiki berriak edo hobetuak

Lotutako emaitza-adierazleak

- RCR29. Zenbatetsitako berotegi-efektuko gasen isurketak

Eragiketen Hautaketarako Irizpide eta Prozeduren dokumentua: Hautagarritasun- irizpideak

- 2.1. Helburu Espezifikoko jarduerak Aldeko Baldintza hauek bete beharko dituzte: 2.1. "Bizitegi-erakinen eta bizitegitarako ez diren eraikinen energia-efizientzia berritzen laguntzeko esparru politiko estrategikoa" izatea eta 2.2. "Energiaren sektorearen gobernantza: Energiaren eta Klimaren Plan Nazional Integratua", Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/1060 (EB) Erregelamenduan ezarritakoaren arabera. Horretan oinarrituta, 2.1 H.E.n hautatutako eragiketek koherenteak izan behar dute Espainiako eraikuntzaren sektoreko birgaitze energetikorako epe luzerako estrategiarekin (ERESEE 2020) eta 2021-2030 Energia eta Klimaren Plan Nazional Integratuarekin (PNIEC). Sektore publikoaren eremuan garatutako jarduerak bat etorriko dira EAEko 2030erako Energia Estrategiarekin (energiari dagokionez eraginkorragoa izango den euskal administrazio publikoa sustatzea planteatzen duena), KLIMA 2050 Basque Country Estrategiarekin (berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea helburu duena), eta Basque Green Deal ekimenarekin (euskal trantsizio energetiko-klimatikoa bultzatzea helburu duena).



- Europako beste finantzaketa-funts/-tresna batzuekiko osagarritasuna. Hautatutako eragiketen gastuetan finantzaketa bikoitzik ez dela egongo bermatuko da, Europatik bi finantzaketa-iturri izatea saihestuz.
- Inola ere ez dira sartuko energia-efizientzia inbertsioak iraupen luzeko zaintzako egoitza-zentro edo -erakundeetan.
- HE honetan jasotako jarduerak Gipuzkoan egin beharko dira.

Eragiketen Hautaketarako Irizpide eta Prozeduren dokumentua: Lehentasun-irizpideak

- Heldutasun maila.
- Kostua.
- Energia-eraginkortasuna hobetzea.
- Ingurumen-inpaktua edo hobekuntza.

4.3 2.7. Helburu Espezifikoa. Natura, biodibertsitatea eta azpiegitura berdeak babestea eta sustatzea, baita hiri-eremuetan ere, eta kutsadura mota oro murriztea.

Ekintzen tipologia

- Uretako eta lehorreko ekosistemen ingurumena lehengoratzeko eta hobetzeko jarduerak, hala nola ibaiertzak, padurak, barrualdeko hezeguneak, estuarioak eta kostaldeak. Ibaien zeharkako eta luzetarako konektibitatea hobetuko da (lotutako arrain-faunaren eta lur eta urezkoaren zirkulazio askea eragozten duten oztopoak kenduz, etab.), ibaiertzeko landaredia lehengoratuko da eta kostaldearen erregresioa kontrolatuko da, baita urari lotutako espezie exotiko inbaditzaileen prebentzioa eta kontrola ere, klima-aldaketak espezie horien ugalketa errazten baitu (besteak beste, Batasunarentzat kezagarriak diren espezie exotiko inbaditzaileen zerrendan daudenak: "Baccharis halimifolia", "Myriophyllum aquaticum" edo "Myriophyllum heterophyllum"). Instalazio zaharretako elementu antropikoak kentzeko unean uneko esku-hartzeak egingo dira, neurri batean, errekaen erriberak osatzen zituztenak. Horrela, ahalik eta espazio naturalizatuena sortuko da, ekologia eta ingurunea lehengoratzeko ahalbidetuko duena, herritarren aisialdirako eta gozamenerako jardueretarako. Halaber, interes handiko natura- eta ondare-elementuak dituen inguruari balioa ematea ahalbidetuko duena, hala nola hezeguneei, burdinola zaharrei eta errotei.

Lotutako gauzatze-adierazleak

- RCO26 . Klima-aldaketara egokitzeko eraikitako edo hobetutako azpiegitura berdeak

Lotutako emaitza-adierazleak

- RCEXX: Finantzatutako babes-, kontserbazio- eta leheneratze-neurrien onuradun diren udalerrien kopurua.

Eragiketen Hautaketarako Irizpide eta Prozeduren dokumentua: Hautagarritasun- irizpideak

- 2.7 Helburu Espezifikoko jarduerak 2.7 Aldeko Baldintza bete behar dute, "Batasunaren kofinantzaketa eskatzen duten beharrezko kontserbazio-neurrietarako lehentasunezko ekintza-esparrua" edukitzea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/1060 (EB)



Erregelamenduan ezarritakoaren arabera. Horretan oinarrituta, 2.7 HEn hautatutako eragiketek, ahal den neurrian, Euskadiko 2021-2027 Lehenetsuneko Ekintza Esparruarekin (LEE) koherenteak izan behar dute. Sektore publikoaren eremuan garatutako jarduerak bat etorriko dira, hala dagokionean, "KLIMA 2050 Basque Country" EAEko 2050rako Klima Aldaketaren Estrategiarekin, 2030rako Bioaniztasun-Estrategiarekin, 2021-2027ko Lehenetsuneko Ekintza Esparruarekin, EAEko 2020rako Geoaniztasun Estrategiarekin edo Euskadiko 2030erako Lurzorua Babesteko Estrategiarekin.

- Natura 2000 Sarearen eremuko jarduerak 2021-2027 aldirako Lehenetsuneko Ekintza Esparrua ezartzen lagunduko dute, Sareko eremuekin lotutako espezieak eta habitatak mantentzeko eta lehengoratzeko neurriei buruzko LEEaren zatian eraginez, eta, bestetik, Natura 2000tik haragoko azpiegitura berdearen neurri gehigarriei buruzko LEEaren zatian, azpiegitura berdeen arloko gaikuntza barne.
- Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren eta Bidezko Trantsiziorako Funtsaren 2021-2027 aldirako programetako gastu onargarriei buruzko arauen arabera, ingurumena zaintzeari buruzko eragiketen arloan, ez da aplikatuko diruz lagun daitekeen guztizko gastuaren % 10eko muga, erosketaren eta eragiketaren helburuen arteko lotura zuzena duten lursailen erosketetan.
- EBko beste finantzaketa-funts/-tresna batzuekiko osagarritasuna. HE honetan egiten diren ekintzak LGENFrako aukera daitezkeen jarduerak ere izan daitezke. Argi eta garbi ezarriko dira esku-hartze kategoriak eta funts batekin zein bestearekin finantzatu beharreko gastuak, eta euskal administrazio publikoek zuzenean gauzatutako jarduerak bakarrik finantzatuko dira.
- HE honetan jasotako jarduerak Gipuzkoan egin beharko dira.

Eragiketen Hautaketarako Irizpide eta Prozeduren dokumentua: Lehenetsun-irizpideak

- Heldutasun maila.
- Kostua.
- Kokapen geografikoa.
- Ingurumen-inpaktua edo hobekuntza

4.4 2.8. Helburu Espezifikoa. Hiri-mugikortasun multimodal eta jasangarria sustatzea, karbonoaren zero isuri netoko ekonomiara doan trantsizioaren barruan.

Ekintzen tipologia

- Bizikleta bidezko mugikortasuna garraio publiko gisa sustatzen duten proiektuak, eguneroko erabilera bultzatuz, segurtasun-, erosotasun- eta konektibitate-irizpideetan oinarrituta eta automobilaren erabilera -ez hain jasangarria- ordezkatzuz, estrategia bateratuen eta multimodalaren esparruan. Eremu guztietara (bizitokia, lana, zaintza eta aisialdia, hiriguneetan eta hiri- eta landa-eremuetako loturak) bizikletentzako irisgarritasuna ahalbidetzen duten jarduerak hartzen dituzte barnean, eta intermodalitatea sustatzen dute joan-etorrietan, sarea beste garraiobide batzuekin lotuz; trafikoak eta horri lotutako energia-kontsumoak sortutako ingurumen-inpaktuak murrizten laguntzen duten proiektuak dira, herritarren bizikidetzatza-ardura, ingurunea eta bizi-kalitatea hobetuz. Mugikortasun iraunkorra bultzatu nahi da, herritarren artean bizikletaren erabilera sustatuz eta laneko joan-etorrietan edo edozein motatako eguneroko joan-etorrietan modu aldatzea bultzatuz, zirkulazioan dauden ibilgailu motordunen kopurua eta gehiegizko kutsadura eta zarata murriztuz.



Lotutako gauzatze-adierazleak

- RCO58. Bereziki lagundutako txirrindularientzako azpiegiturak.

Lotutako emaitza-adierazleak

- RCR64. Txirrindularientzako azpiegitura espezifikoaren urteko erabiltzaileak

Eragiketen Hautaketarako Irizpide eta Prozeduren dokumentua: Hautagarritasun- irizpideak

- Sektore publikoaren eremuan garatutako jarduerak, berariaz konexio multimodaleko loturagune berriei (modu-aldagune berriak) edo guneen arteko lotura berriei buruzkoek (azpiegitura-lerro berriak), horiek egiten diren udalerrietako Hiri Mugikortasun Jasangarriko Planetan jasota egon beharko dute nahitaez. Horrela, Plan horien eta jardun horien plangintza espezifikoa garatzen duten administrazio eskudunen plangintza-tresnen arteko koordinazioa bermatuko da (adib.: Bizikleta-bideen lurralde-planak). Garraio kolektiboko flotak ibilgailu garbiekin berritzea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko 2019/1161 (EB) Zuzentarauaren arabera egingo da, 2009/33/CE Zuzentaraua aldatzen duena.
- Europako beste finantzaketa-funts/-tresna batzuekiko osagarritasuna. Hautatutako eragiketen gastuetan finantzaketa bikoitzik ez dela egongo bermatuko da, Europatik bi finantzaketa-iturri izatea saihestuz.
- HE honetan jasotako jarduerak Gipuzkoan egin beharko dira.

Eragiketen Hautaketarako Irizpide eta Prozeduren dokumentua: Lehentasun-irizpideak

- Heldutasun maila.
- Kostua.
- Lurraldearen eta herritar guztien konektibitate handiagoa.
- Ingurumen-inpaktua edo hobekuntza



5. ERAGIKETAK HAUTATZEA

Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritzak onartu ahal izateko, eragiketa jakin baterako aurkeztutako finantzaketa-eskaerak/interes-adierazpenak aurreko atalean zehaztu diren Euskadiko 2021-2027 EGEF Programako Eragiketak Hautatzeko Irizpide eta Prozeduren dokumentuan adierazitako hautagarritasun-irizpide guztiak bete behar ditu.

Hala badagokio, hautagarritasun-irizpideren bat betetzen ez bada, interes-adierazpena ukatu egingo da, eta Foru Aldundiak ukatzeko arrazoia jakinaraziko dio organo eskatzaileari.

Eta hautagarritasun-irizpide guztiak betez gero, Foru Aldundiak lehentasunak ezartzeko irizpideak ebaluatuko ditu.

Lehentasun-irizpideek ehuneko pisu bera izango dute gutzizko puntuazioaren aldean, eta, era berean, baremazio bat planteatuko da irizpide horiek baloratzeko:

- gutxiegiakoa (1): Irizpidea ez da egiaztatzen, edo ez behar bezala, edo akats larriak ditu.
- erdizkakoa (2): Irizpidea egiaztatzen da, baina proposatutako jarduera finantzatzeko eskaerak ahultasun esanguratsuak ditu, eta horrek zalantzan jar dezake irizpidea betetzea.
- ona (3): Proposatutako jarduera finantzatzeko eskaerak behar bezala erantzuten dio irizpideari, baina akats arinen bat du, eta horrek ez du arriskuan jartzen irizpidea betetzea.
- oso ona (4): Proposatutako jardueraren finantzaketa-eskaerak lagundu egiten du, eta hura betetzeko irizpideak biltzen dituen alderdi garrantzitsu guztiak jorratzen ditu.

Eragiketa jakin baterako aurkeztutako finantzaketa-eskabideak/interes-adierazpenak hautatua izateko eman daitekeen puntuazioaren % 50 lortu behar du gutxienez. Bestela, Zuzendaritzak ukatzeko arrazoia jakinaraziko dio organo edo erakunde eskatzaileari.

Adibidez, 2.8 HEren kasuan, non 4 lehentasun-irizpide ezarri diren, gehienez 16 puntu eman daitezke, eta gutxienez 8 puntu lortu beharko dira (gehienez eman daitezkeen puntuen % 50) eragiketa hautatua izan dadin.



6. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Gipuzkoako Foru Aldundiak Euskadiko 2021-2027 EGEF Programan EGEF Funtsak kofinantzatutako eragiketarako bitarteko erakunde gisa dituen funtzio eta prozeduren deskribapenean ezarritako prozedurei jarraituz, hautatutako eragiketa bakoitzerako, onuradunek, Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritzarekin batera, **laguntzaren baldintzak ezartzen dituen dokumentua** sinatu behar dute.

Era berean, onuradunek **lankidetzaren hitzarmen** bat sinatu behar dute Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritzarekin, eta berariazko **Funtzio eta Prozeduren Eskuliburu** bat eduki behar dute programan parte hartzeko (Zuzendaritzarekin lankidetzan egina), hautatutako eragiketak behar bezala burutu eta jarraitzeko.

Dokumentu horietan (Laguntzaren baldintzak ezartzen dituen dokumentua, Lankidetzaren Akordioa, Organo Kudeatzailearen Eskuliburua), onuradunen arauzko betebeharrak espezifikoki jasoko dira, funtsean, honako hauek izango direlarik:

- Diruz lagundutako eragiketa gauzatzeko finantza-plana eta egutegia betetzea, laguntzaren baldintzen dokumentuan ezarritakoa, 2021/1060 (EB) Erregelamenduaren 73.3 artikulua arabera.
- Azpiegitura edo inbertsio produktiboetan inbertsioak egitea dakarten eragiketen funtzionamendu- eta mantentze-kostuak ordaintzeko beharrezkoak diren finantza-baliabideak eta -mekanismoak izatea, haien finantza-iraunkortasuna bermatzeko, 2021/1060 (EB) Erregelamenduaren 73.2.d) artikulua arabera.
- EGEFarekin kofinantzatutako gastua diruz laguntzeko epealdia ezagutzea. Ordainketa efektiboa 2021/1/1etik 2029/12/31ra bitartekoa izan behar du, 2021/1060 (EB) Erregelamenduaren 63.2 artikulua arabera.
- Eragiketarako arlo bakoitzean aplikagarriak diren Europako, Estatuak eta Eskualdeko, arauen arabera gauzatzeko, eta kofinantzaketaren xede diren jarduerak egin direla, aitortutako gastua egin dela eta gastu horrek Europako eta Estatuak araudi aplikagarriak betetzen dituela egiaztatzea, 2021/1060 (EB) Erregelamenduaren 74.1.a) artikulua arabera.
- Kontabilitate-erregistro independenteak mantentzea edo eragiketarekin lotutako transakzio guztietarako kontabilitate-kode egokiak erabiltzea, 2021/1060 (EB) Erregelamenduaren 74.1.a) i) artikulua arabera.
- Iruzuraren aurkako neurri eraginkorrak eta orekatuak aplikatzea bere kudeaketa-eremuan, hautemandako arriskuak kontuan hartuta, 2021/1060 (EB) Erregelamenduaren 74.1.c) artikulua arabera. Ildo horretan, bitarteko erakundeak (Zuzendaritzak) funtzioen eta prozeduren deskribapenean ezarritako jarraibideen arabera, onuradunak honako hauek egin beharko ditu:
 - Iruzur-arriskuaren autoebaluazioa egitea bere jardun-eremuan.
 - Interes-gatazkarik ezaren adierazpenak ezartzea kontratazio-prozesuetan.
 - Bandera gorrien zerrendak ezartzea kontratazio-prozesuetan
- EGEFen informazio- eta komunikazio-arloko betebeharrak betetzea, 2021/1060 (EB) Erregelamenduaren 50. artikulua eta IX. eranskinaren arabera.
- Datuak biltzeko, erregistratzeko eta biltegitratzeko sistema fidagarri bat dagoela ziurtatzea, kudeaketa-, jarraipen-, ebaluazio-, egiaztapen- eta auditoretza-helburuetarako, bai eta Bitarteko Erakundearekin informazioa elektronikoki trukatzeko gaitasuna ere, 2021/1060 (EB) Erregelamenduaren 69.8 artikulua eta XIV. eranskinaren arabera.



- Gastuen aitortpenak eta horien justifikazio-informazioa aurkeztea, Bitarteko Erakundeak (Zuzendaritzak) eskatutako xehetasunekin, formatuarekin eta aldizkakotasunarekin, eragiketari lotutako gauzatze eta emaitza adierazleen lorpen-maila barne.
- Finantzaketa bikoitza saihesteko, eragiketa bererako finantzazioa ez zaio inolaz ere eskatuko berezko aurrekontua edo EGEF-etik aparte beste erakunde, funts europar edo programa bati.
- Aitortutako gastuarekin lotutako egiaztagiriak bost urtez gordetzea, kofinantzatutako eragiketaren azken ordainketa egiten den urteko abenduaren 31tik aurrera, 2021/1060 (EB) Erregelamenduaren 82.1 artikulua araberara.
- 2021/1060 (EB) Erregelamenduaren 72., 74. eta 77. artikuluen arabera kofinantzatutako eragiketari buruzko egiaztapen, kontrol eta auditoretzei dagokienez, Bitarteko Erakundearen (Zuzendaritzaren) eta Estatuko eta Europako beste erakunde eskudun batzuen eskura egotea, hala nola Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoa, Ogasun Ministerioaren Ikuskaritza eta Kontrolerako Zuzendariordetza Nagusia (SGIC) edo Europako Batzordearen REGIO Zuzendaritza Nagusiko auditoreak. Batez ere, kofinantzatutako eragiketaren xedea gauzatu dela, aitortutako gastua benetan egin dela eta horrek aplikagarri den legeria eta programaren baldintzak betetzen dituela egiaztatzea ahal izateko.
- Eragiketaren iraunkortasunari buruzko betebeharrak betetzea, eragiketa amaitutakoan, 2021/1060 (EB) Erregelamenduaren 65. artikulua araberara. Ildo horretan, azpiegiturretan edo inbertsio produktiboetan egindako inbertsioak barne hartzen dituzten eragiketen kasuan, onuradunak EGEF funtsaren ekarpena itzuli beharko du, onuradunei azken ordainketa egin eta hurrengo bost urteetan, eragiketa honako egoera hauetakoren edozeinetan badago:
 - a) laguntza jaso zuen NUTS 2 mailako eskualdetik kanpo jarduera produktibo bat etetea edo transferitzea;
 - b) enpresa edo erakunde publiko bati bidegabeko abantaila ematen dion azpiegitura-elementu baten jabetza aldatzea;
 - d) eragiketaren izaerari, helburuei edo gauzatze-baldintzei eragiten dien funtsezko aldaketa, haren jatorrizko helburuei kalte eginez.
- 2021/1060 (EB) Erregelamenduaren 49.3 artikuluan aurreikusitako kofinantzatutako eragiketen zerrenda publikoan onuradun gisa sartzea onartzea.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta genero-ikuspegiaren integrazioa kontuan hartzen eta sustatzen dela zaintzea, eta, programazio-aldi osoan, sexua, arraza edo jatorri etnikoa, erlijioa edo sinesmenak, desgaitasuna, adina edo sexu-orientazioa direla eta bereizkeria oro saihesteko neurri egokiak hartzea. Hala, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua aplikatuko da.
- Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritako baldintzak betetzea.
- Desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasunaren arloan EGEFen aplikatzekoa den araudia eta haren printzipio orokorrak betetzen direla bermatzea.